

## 1- ENTZUN AURRETIK

### 1.1 Garbigailua jarri.



Talde txikitan jarri eta idatzi zer lan egiten diren etxe batean:

- *Garbigailua jarri.*
- *Arropa lisatu.*
- ...

### 1.2- Zuk zer egiten duzu?



Orain, binaka jarrita, galdetu zure lagunari bere etxean nork egiten duen lan bakoitza.

- o *Zure etxean nork lisatzen du arropa?*
- *Gehienetan nire emazteak, baina batzuetan niri tokatzen zait.*



## 2- ENTZUN BITARTEAN

### 2.1 Zer egin behar dute?



Entzun elkarrizketa eta lagunekin adostu erantzunak.

Zer egin behar du Amaiak asteburuan? .....

Eta Josuk? .....

Lehen zer egiten zuen Josuk arroparekin? .....

### 2.2 Ai Josu!



Entzun berriro.

- Zer moduz dabil Josu ikasketetan? .....
- Nolako arropa garbitu nahi du Josuk? .....
- Noiztik ez du arropa garbitu? .....
- Zer botatzen dio Josuren amak arropa garbiari? .....

### 3- ENTZUN ONDOREN

#### 3.1 Egunero



#### MAIZTASUNA adierazteko: izena+-ero

Ekintza bat **zenbatero** egiten dituzun adierazteko **-(e)ro** atzikia erabiltzen dugu: *egunero, astero, urtero...*

Ez erabili egitura hori zenbakiekin: *\*hiru egunero*. Horrelakoetan **-(e)z behin** esan: *hiru egunez behin, bi astez behin...*



Hartu 1.1 ariketan atera diren etxeko lanak, eta, binaka jarrita, komentatu elkarrekin zuen etxean zein maiztasunekin egiten dituzuen.



- *Zenbatero jartzen duzue garbigailua etxean?*
- *Normalean, garbigailua hiru egunez behin jartzen da, baina, arropa asko badago, egunero.*
- *Ba, gurean...*

#### 3.2 Asmo onak.



Orain zuen euskara ikasteko plangintza egingo duzue. Lehenengo, bakoitzak berea:

- *Egunero etxeko lanak egingo ditut.*
- *Hiru egunez behin bideo bat ikusiko dut.*
- *Astero...*

Eta gero, denon artean, taldearena:

- *Ostiralero batek egunkariko berri bat irakurriko du...*